urrugne 10 Juin 1842. 

Hiriart

# Instruction sur le quatrième article du Symbole des Apôtres...

Passus sub Pontio Pilato, crucifixus, mortuus, et Sepultus.
Soffritu çuen Pontio Pilatusen manuaren azpian, curutcefícatu, hil eta ehortci çuten.

Apostoluac mintcatu çaisquigun ondoan, a. m. Jesus-christo Jaincoo Semearen incarnacioneaz edo haren guiçon eguiteaz, heldu dire laur garren articulu huntan haren passioneco misterioaz, ceinaren bidez complitua içan baita gure erospena guçia. Apostoluac asqui compreniaraztenVarocu, cein necessario den fidel guçiec içan decaten articulu hunen eçagutça divenean, eztut besteric Jaquin nahi içatu J. to baiçic eta J. to curutcefícatua baiçic. erran ahal daitegue guiristinoaren Jaquintassun guçia J. cto curutcefícatuarenean cerratua beçala dela. eta hala Sciencia edo Jaquintasun huntan ongui instruitua denac, hau ongui estudiatu eta meditatu duenac badaquisquiela Cerurat heltceco Eguin behartuen guçiac. cein beraz sobera aplica naitaque, a. m. çuei hain Jaquitate admiragarria eta necessarioa daucan articuluaren explicatcerat. hau da gure erreligionearen cimendua, hau ongui behin çarriz gueroz, erres da gaineracoen frogatcea. hortaz fedesco misterioen artean guti da gurutceco misterioa baino sinhetz gaitcagoric. ceren fedearen lagunteca gabe, nola segura gure ispirituac gure Salbamendua gurutcetic eta guizon gurutcat gurutcefícatua içanden baten ganic dependitcen çela. inutil laitaque beraz hori çuei arraçoinamenduz iracutsi nahi içaitea, arraçoinamenduz goragoco misterioa denaz gueroz, hargatic era Jaincoac berac icusiric etcela deusere gure arraçoinetic gurutceco misterioa baino urrundiagoric, gure lehen bicico burasoen bekhatutic hunat hambatetan eta hambat manera differentez, orai figurez, gueroProfeten bracloz adiaraci nahi içatu du bere Semearen heriotcea, Isaaquen sacrificioa, Juduec Egyptotic Elkhitcean immolatu çuten bildotsa, eta urthe guciez bazco bestetan immolatcen çutena, Moisec Desertuan alchatu çuen cobresco sugueá, J. cho gure Jaunaren heriotcearen eta passionearen hambat figura dire. Prophetiez berriz den beçen batean, ezda

çein nombre handian diren haren heriotcea eta passionea aintcineral adiaraçi daucutenac eta batçuec hain clarqui non ezbaitira iduriten Prophetac, bainan bai Evangelistac erran nahi dut, ez direla J.-toren heriotciaz mintçatu gauça arribatu beharçuen batez beçala, bainan bai da arribatu eta berec icusi balute beçala eta hori J.-to mundurat ethorri baino ascô demboraz lehenago.

Bortz gauça dire articulu huntan çuei esplicatceco. 1o J.-to pairatu duela; 2o Pontio pilatusen manuaren azpian, 3o gurutcefficatua içan dela; 4o hil dela, 5o ehortci çutela.

Apostoluec articulu huntan diotenian pairatu duela. hitz hortan sarratu tuste J.-tren gorphutceco eta ispirituco pena, affictione eta supplicio guciac. Ô eta certarainocoac horiec ez ditu içatu! cer trufa eta mesprecio etcaio eguin! ba da affrunturic, gaitz suerteric errecibitu ez duenic? ez dugu orhoitcea baiçen nola hartu eta amarratu çuten, haren bisaya colpez oubeldouaz, ziluz estaliaz, gorphutz açote colpez sarrasquituaz, juzamendu injustuaz, arrastacuelaz, solda duen trufez, affruntuez eta colpez, Ilhana colpez, buruan sarthu cioten arancezco khoroaz, itce gurutce, minagre eta sofriaraci cioten gaineraco supplicio guciez. horiec guciac haren paciençia handiaren, guretçat içatu duen amodio infinituaren, bekhatuaren handitassunaren, eta haren heriotceaz eta passioneaz progotchatuco ez diren bekhatoreen gainean Jaincoac eguinen duen puniçione ikharagarriaren froga eçin dudatuzcoac dire...

Sofritu duen ispirituco penes denas beçembatean, cer ez deçaqueguque erran; sofritu duela berac çiovenaz queroz: tristecia hilzarri batean dut ene arima; bertcéan berriz ene Jaincoa, ene Jaincoa çertaco abandonatu nauçu. horra J.-to gure ganaco amodioac çertaraino ethharri duen, bada gure deboçioneac haren sofricari horietan causitu behar du meditaçione eta erreflexione saindu en eguiteco suyeta. Jaquin behar duçue ordean, a. m. natura humanoa Jaincoaren semearen presuna divinoarequin bat eguina içan arren, etcuela unione horrec doloreen sentitcetic guibelatcen, çeren bi natura hec unione hartan conserbatu baicituzten berei propi edo tocatcen çiçaizcotenac, hala J.-to baithan pairacor eta hilcor çena bethi lurrean egutu deno pairacor eta hilcor ezatu da, hala nola haren baithan pairacor eta hilcor etcenac, erran nahi da Jaincotassunac bethi conserbatu içan ditu bere qualitate admiragarriac.

Çertaco Apostoluec eman dute articulu huntan, Pontio pilatusen manuaren azpian?

guri irabastecco ceïn demboretan J.-toc pairatu duen, erran nahi da, Tibere ceritçan Emperadoreac egorri çuen Judearat, eman çioen probinçia haren gobernua, eta hango Juie eta Emperadore haren intendant çen demboran eta haren sentençiaz hec guçiac soffritu cituela, eta eman daiste çirconstançia horren bi arraçoin; bata hori emanda credoan, J.-toren passionearen eguia eçin duda daitequeen eta nihorc ere eçin contresta deçaqueen maneran seguratceco. hargatic Jondoni pauloc uste içatu du hortaz aiphua eguin behar çuela bere lettra Timothei eguinean. 1 Tim. c. 13. Eliçaco aitac ere hortaz beraz baliatu dire J.-tos eta haren passioneaz erraten cituztenen sustengatceco eta seguratceco. bertce arraçoina da ceren çirconstançia huri baliatcen baita Profetec erranicacoen Justificatceco, halaber J.-toc errana eguietan aguertceco. (emana içanen cela gentillen menerat, trufatua, mesprecatua, açotatua, eta lurreco prince bat içan behar çutela haren contra, Davidec adiaraçi eta Apostoluec presondeguitic illkhitcean eguin çuten othoitz excellentean, hori bera guerthatu cela marcatu çuten beçala.

Cer erran nahi da, a.m. curutcefficatu çuten? horrec marcatcen du, J.-to gure Jaunac cer heriotce suerte soffritu içan duen, erran nahi du Dolorosena, eta orduan munduan, eta bereçiqui juduen artean, çaitequen infameena, ecen supplicio suerte hura guçietaric laidotsuena beçala ethiquia cen lurreco natione guçiez. Juduec berriz uste çuten gurutcefficatua çen gaistaguinac cembait madariçione bereci Jaincoaren ganic errecibitu çuela, ceren Moisen leguean errana baitcen madaricatua dela curutic dilindan emana dena. halaric ere infamia horrec ez du J.-to guibelatu gurutceco supplicioaren soffritcetic, gu leguearen madariçionetic erosteco, Jondoni pauloc dion beçala bera guretçat madariçione eguin da, erran nahi da guri salbamendu eternala ardiesteagatic, guiçon madaricatu batentçat passatu nahi içan duela. compreni çaçun eçin gueiagoco miseria hau guiçonaren baithan cer misericordiaren gaindidura içatu den Jaincoaren baithan, eçin guiçona içatu ditequenaz gueroz Jaincoaren madariçionetic libratua, Jaincoa guiçonen madariçionetic içagan gabe. certaco J.-toc gurutceco supplicioa soffritu nahi içan duen Eliçaco aitec asco arraçoin dakharsquete, bainan comboriencic dirudienada; Eliçaco officioan causitcen dena, ceina baita, nahi içan duela cerc ere causatu baitcuen heriotcea, hura içan çadin biciaren ethorquia eta iturria eta gure

5

Lehenbicico burrasoac arbolaren fruituaz bentoutu cituen suguea, ican cadin bera Jtos gurutceco arbolaren gainean bentoutua.

Oraino articulu hunec dalkharque, hil cen. eta arracoinequin ematen caico puntu pontu hori Sinhesterat, ceren icatu baitire heretico Suerte batzuec (basilidiens, Saturniens, Valentiniens, Marcionitac eta Manicheoac) ciste icatu dutenac, duduec, phantomabat edo guizen itchurabat choilqui gurutcefieatu cutela, bainan testamenta çaharrac eta berriac seguratcen gaituzte, Jto eguiazqui hil dela. Evangelista guciec clarqui diote gurutcean azquen hatsa artiqui cuela eta Isaias prophetac aintcinerat adiaraci cuen hillen cutela. bertcenaz ere Jto eguiazqui guicona cenaz gueroz, eguiazqui hill ican da, ez baita heriotcea arimaren gorphutcetic separatcea eta ilkhitcea baicen, eta nola Evangelistec erraten baitarocute azqueneco hatsa artiqui eta bere arima errendatu cuela, sinhetsi behar dugu haren arima haren gorphutcetic eguiazqui separatu cela; ez tu cue ordean hortic hartu behar, haren daincotassuna halaber holaric separatu cela. aitcitic fermuqui sinhetsi behar ducue haren arima haren gorphutcetic ilkhi arren, haren daincotassuna gorphutcarequin thomban eta haren arimarequin ifernuetan bethi juntatua egotu cela.

Bainan, a.m., hauda gauza particularra Jtren heriotcean ez da choilqui hil berac nahi ican duenean, eta ez da haren heriotcea ethorri hambat tormenten biolenciatic, nola icatu baita haren borondatearen effetu bat, bainan oraino bera libratu ican dela heriotcerat, berac determinatu eta marcatu icantu bere heriotceco toquia eta dembora. hori da, a.m., berac bere passionean mincatcean diona: uzten dut ene bicia berriz harçecotan, ez daut ene bicia nehorc ere ene bicia idiquitcen, bainanene baitharic uzten dut. badut ene biciaren uzteco eta nahi dudanean haren berriz hartceco bothorea. ez du beraz Jtoc dousere bortchaz sofritu, bainan bera ofreitu da heriotcerat, bere etsaiei aitcinerat joanic, eta heiei bere erranic, ni naiz bilthatcen duzuena, eta ostitu hain injusteqi eta hain crudelqui jasainaraci diotcaten tormenta guciac sofritu bere nahirat baicen. eta horra cer gueiago uquitu behar gaituen, harc gure gatic sofritu dituenac consideratcean. ecen uste baguin duque obligacione handia guiniduquela gure consideracinetan dolore haguitz handiac sofritu dituquen presunari, ekituzquen arren berac bilthatu dolore hec, cer obligacione ez tioga Jtori ceinac borondatosqui eta bere nahirat eta gure salbatceco horiec guciac eguiin baititu....

Jincan Litoi Apostolico ordoan, eta ehortci çuten. circonstancia hori eratchiqui dute bi arracoinen gatic. bata niholeretaco manoran duda etcadintçat J. C.ren heriotcearen gainean, presuna batez ekhar daitequen frogario seguruena denaz gueroz ehortcia içan dela erratea. bertcea berriz haren biztteco miraculua içan cadin clarago eta distinguiago aguertcadintcat.

Oraino, a.m., hitz horiec obligatcen gaituzte sinhesterat ez choilqui haren gorphutca thomban emana çela, bainan oraino jaincoa ere, eçen nola sinhesten baitugu jaincoa sorthu dela, fedearen erreguela berac obligatcen gaitu hill dela sinhesterat. hortaz nola jaincotassunac ez baitu behinere abandonatu J. C.ren gorphutca, hortic necessarioqui hel du da aithortu behar baitugu jaincoa ehortcia içan dela. hirur arracoinen gatic hala nahi içan du. 1º lehena, Scritura saindua perfequi complicadintcat, çainac aintcinerat adiaraçi baitcuen ehortçia içanen çela eta haren thomba gloria gucizcoa. 2º bigarrena gauça gucietan eta hill ondoan ere gure aurrico aguertcadintcat. 3º hirurgarrena, bere çerbitcariei eta emastequi sainduei haren gorphutcaren alderat misericordiazco obren praticatceco occasioneearen ematceco. Ez naiz hemen, a.m. tricatuco çuei erraten, J. C.ren gorphutca zer maneraz ehortci çuten; bainan bi gauça erremarcaraci behar dauzquitçuet. 1º J. C.ren gorphutca thomban ez dela corrompitua içatu, hala erregue s.th prophetac aitcinerat adiaraci çuen, ciocnean ez duçu jauna permetituco çure gorphutz saindua corruptionetic iragan dadin. hortaz nola haren gorphutca bekhatutic eta bekhaturaco inclinacione gucietaric exempt içatu baitcen, justu çen etcecan etcecan fruta bekhatuaren pena eta seguida den corruptionea, eta, eçen erreflexioneac merechituena da articulu huntan erran duguneean pairatu duela, hill dela, eta ehortcia içan dela, etcaitzcala horiec conbeni guiçon bezala, baicic natura humanoa baiçen ez baita gai soffritceco eta hiltceco, hala diogunean jaincoac sofritu du, jaincoa hill da ez da hori erraten baicen ceren guiçontassuna presuna divinoarequin edo jaincotassunarequin bat eguina cen.

Laur garren articulu huntaco hitz horiec çuei explicatu ondoan, iduritcen çait, a.m. necessario dela çuen devocionearen hazteco, çuei aditu tutçuenen gainean çombait erreflectione eta consideracione chume eguin araztea. hala consideracaçue

trufa, mesprecio, afruntu, desohore crueltate hec guciac sofritu tuena dela J.to.
Jaincoo biciaren Seme bakharra, ceru lurren creatçaillea, ceinen diren ainguiruen
eta mundu guci guciaren Jauna eta Jabea. ez da beraz miretsi behar mundu
gucia haren heriotcen ikharrasia eta ilkharatua icussi baçen. Evanjelioac erremar-
cen du lurra ikharatu çela, harriac erdiratu, idusquia goibeldu, eta lur gucia
ilhumbetan sartu çela, arimaric eta sendimenduric gabeco creaturac bere creatçaillearen
heriotcian † nolaispet ere doloratuac aguertu baciren, ceinde gu, ceinençat hil baita
eta ceinei hambat gracia bere heriotceaz merechitu baitarozquigu, cein den berriz
ere dirçt, gure mancatu eta iracutsi behar dugun dolorea... Oraino consideraraçue
zere ikharri duen J.to sofritcerat eta hiltcerat eta hortic oraino hobequi eçagutuco
duçue nolacoa içatu den haren gure ganaco amodioa. Examinatcen badugu beraz
haren passionearen eta heriotcearen causa, icussico dugu, gure lehenbicico Aitac
premunitassuntcat, utci içan daucun eguin, cuen bekhatuaz landan, guicon guciec
eta bacotchac particularrean eguin tuen bekhatuac eta munduaren akharançaraino
eguinen direnac içatu direla haren heriotcearen causa. Ecen J.to gure Jaunac bere
passionean † eta heriotcean içatu duen chede edo intentione principala içatu da
dembora gucietaco bekhatuen urratcea eta heguintcat bere Aita Jaincoari
satisfacione assolutaren eguitea...

Baina J.to-ren amodioa guciago distiaraztecen dueha da, espaitu choilqui bekha-
toreentcat sofritu, bainan oraino bekhatoreac berac içatu baitire sofritu tuen
pena gucien autorrac eta ministroac. nola beraz J.to-k gure bekhatuençat
sofritu baitu eta bekhatoreec hiltarazi baitute, hortic heldu da Jondoni Paulo
dioen beçala bekhatuz eta crimez beren buruac lohitcen dituztenec berriz curutce-
ficatcen baitute. crima hori hambatenaz da icigarria guiristinoetan, ecen Judaec
apostoluac dioen beçala, ez baituzten seculan gurutcefficatuco gloriaco Erreguen-
cat eçagutu balute...

Finean consideraçaçue J.to-ren heriotcean Aita Eternalac eracutsi daucun
amodioa. ecen gucien Jaincoaren amodioan esperantça içanaraztecco, Apostoluac
dion beçala, ez padu bere seme propia esparognatu, eta guciençat heriotcera
libratu badu, hura eman darocun ondoan cer ez darocu emanen, eta beraz

Diren becala, Jaincoac mundua hartaraino maitatu du non eman baitio bere Seme bakharra: nore ere haren Semearen baithan sinhesten baitu, haina gal ez dadintcat, bainan bicitce eternala içan decantcat, sinhetsi behar da beraz Jaincoaren Semea baithan haren heriotceco fruituaz proxutchatceco, erran nahi da, erran daucuena eguin, eta exemplus eracutsi darocuna praticatu, hortan datza Evangelio guzia...

Cein dire ordean J.tu bere passioneaz eta heriotceaz ardietsi darozquigun abantailac? 1.º gure bekhatutaric libratu gaitu. Jaincoac, dio Sondoni pauloc, bere graciaz agradagarri errendatu gaitu bere Seme maitearen baithan, ceinaren baithan caussitcen baitugu bere odolaz ardietsi daucun errospena eta gure bekhatuen barkhamendua. Sondi Joanic dio oraino bere odolean garbitu gaituela gure bekhatutaric. beraz J.tu odola guiconer bekhatuentcat erremedio bakharra eta ossoa da; ordean fede eguiazco batez eguin behar diogute gure buruei haren applicationea. nolen baithan caussi fede eguiasco hura? haren heriotceac libratu gaitu Debruaren gathibotassunetic, Debruac bere possessionean guinaduzcan, eta bekhatuec eman cioten gure baithan hartceco dunac, gordunaren gainean duen suzen bera. naussitassun cruel bat, cuen infidelen bihotzen gainean, eta bere gathetan gauzcala, trompaturic creat cailleari, cor caion adoracionea creaturei bihurtcerat ekharrarasten cituen. Bainan J.tu baithaco fede, haren heriotceaz eta pisteaz ecarria denac, millionca libratutu gathibotasun hortaric fidelac ceinen bekhatuac erratuac içan baitire haren odolaz. 3.º J.tu bere heriotceaz eguindu gure bekhatuei, corcitcaitzcuten penen satisfacionea, eta infinituac guinituen mereçi, ofensatua cen presunaren majestatea gatic. nola Jaincoaren majestatea infinitua baita, offensa ere infinitua çen, eta hala pena infinitu bat merechitcen çuen: ecin beraz offesa hura içorçaiteguen bekhatua Jainco baten mereçimendu infinituez baicen. J.to cen bakharra bere aita gure bekhatuençat b satisfa ahalceçaquena. eguin du bere heriotceaz bere aitarequin erreconciliatu gaitu, eta aita hura fagorable errendatu darocu. caritatez bethericaco anaia hare gure bekhatu guciez cargaturic caussitu da bere gorphutcaren sacrificioaz seculaco colerar

Sarraraci guinduen gure aitarequin gure baquearen eguiteco moyena. gaudecen beraz ikharan lurrean arrotz batzuec becala gareno beldurrez gal Anaia carietaz harc ardietsi daucun abantailla, orhoituric ez gaituela urhez eta cillarrez erosi bainan bere odol preciatuaz.. 4º ez du J^tuc choilqui bere aita gure bekhatuencat satisfatu bere passioneaz eta moyen beraz hari bere burua guretcat sacrificioan offrendaturic perfequi bere aitarequin reconciliatu gaitu. bainan oraino ceruco atheac idiqui darozquigu hec sarratuac cauzcan bekhatuac destruituric, ez da hura baino lehen nehor sarthu ceruan ecin sar ahalere daitaque haren merecimenduz baicen.

Bainan abantail horietaz landan oraino bertce haguitz handi bat erreci-bitcen dugu haren passionetic, erran nahi dut hartan causitcen dugula berthute handi gucien exemplua. bicio gucietaric beguiratceco moyenac eta gure passione gucietaco erreguelatceco erremedioac. hortaz J^tuc dolore guciac sufritcean eta heriotcetic ere iragatean hambat paciencia, humiltassun, caritate, estitassun, obediencia, curaya eta constancia iracutsi du non eraguitu eta aithortu behar baitugu bere passioneco egun choilean complitu duela lurrean bitcez predicatu duen demboran iracatsi darozquigun guciac, hala haren biciteaz erran içan dena erran içan daitaque halaber haren heriotceaz gure umoreen erreguelatceco, istruitione continoz co bat içatu dela...

Jaincoac digula gracia. a.m. haren heriotcearen gainean maiz meditatceco eta eman darozquigun exemplu handien praticatceco. gaudecen ordean bethi beldurtassunean, hori da pratican eman ahal ditaquen moyanic excellenteena. J^tuc bere heriotceaz mericitu daroçun gracien ardiesteco, conserbatceco, eta galdu ondoan berriz içatu graciaren presentatcen çaicunean gaudecen ikharan hartaz ungui balia ez gaitecen beldurrez. ikhara gaitecen oraino gucian hura galtcen duguneann, ecen hura gabe salbamenduco eçin deus onic eguin decaquegu. ikharan gaudecen oraino gracia hura berriz ardiesten dugunean beldurrez berriz erorgaitecen eta gure erortcea erremedioric gabe içan dadin. ordean, a.m. beldurtassun horrec certarat erakharri behar gaitu, horrec erne, atcarriac, eta fidel atchiraraci behar gaitu Jaincoac presentatcen, eta J^tuc bere heriotce saindua mereçitu daroçun graciaren alderat.

iratchic dioзoguen beldurtassunari fidançia eta eçagutça, consideratuic J.to mundurat ethorri eta hill dela gu gaitz gucietaric handienetic libratceco. errran nahi da damnacione eternaletic, eta guri ontassun han gucietaric handienaren ardiesteco, ceina baita dohatsutassun eternala. bi ongui eguin handi horien alderaco eçagutçatcat galdatcen darocun gucia da, a.m. leialqui beguiraditcagun haren manamendu sainduac. ai gure esquer gabeac hori eguiten ez baduzu, guretçat amodios bethea den sainco bater emanac dituzunaz gueros. oraino, cein bihotz gaztocoac ez quintezque ez ilchiquitceaz, arraçoinarequin manamendu hec conforme direnaz gueros. finean gueren buruen hain etsai ez quintesque hauquin hausteaп edo hauc negliatcean gu dohatsu eguiterat daramatcatenaz gueros eta hauc beguiratcen ez baitugu gure dohacabetassuna segur dugunaz gueros. eguintcagun erreflexioneac eguia horien gainean eta icusagun, cer conduita daucagun. sain Bada sainduac nahi duela orai arteraino hautsi tugunen penitencia eguiazcoaren eguiterat erakharzaitçaten, guisa hortan ardietsi ondoan gurien barkhamendua içan deçagun dohatsutassuna gocatceco̧ua seculaco gloriaz, ceina desiratcen baitautzuet, aitaren eta Semearen eta Espiritu sainduaren içenean. halabiz.

A M J

Urrugne le 10 Juin 1842.

Hiriart vicaire